



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 19a

54. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00004. Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa. Irene Royo Ortín andreak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/ITP-00010. Interpelazioa, desinformazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00149. Galdera, 2023an artatutako herritarrei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari buruz egindako gogobetetasun inkestaren metodologiari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00175. Galdera, Turkiako arnagailuei orain arte emandako erabilerari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00176. Galdera, azken ikasketa-urtean dauden BAMEek 2024ko udan izanen duten laguntza-jarduerari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00177. Galdera, Iruñeko eremu jakin batzuetan zuntz optikoko zerbitzuetarako sarbidea izateko dauden arazoei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00178. Galdera, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren agenda instituzionalari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00179. Galdera, kastoreek egindako kalteei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00180. Galdera, Tuterako ospitalerako ohe elektrikoen lizitazioarako prozesuari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (9. or.).

- 11-24/PES-00181. Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoa gainbegiratzeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00182. Galdera, Nafarroako Kontuen Ganberak egindako gomendioari buruzkoa, fundazio publikoaren figura erabiltzekoa berez bat datorrenean haren izaera juridikoarekin. María Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00183. Galdera, Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoaren jardueraren helburuen betetzea ebaluatzeko eraginkortasun-kontrolari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00184. Galdera, hidrokarburoen gaineko zergaren kuotak itzultzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00185. Galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00186. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00187. Galdera, etxegabetasunaren aurka borrokatzeko Nafarroako Estrategiaren prestaketari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00188. Galdera, “Erorien Monumentua” izenez ezagutzen den multzo arkitektonikoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00189. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren maskara kirurgikoei, FFP2 eta FFP3 maskarek buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00190. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabili eta botatzeko medikuedo ospitale-mantalei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00191. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko amasgailuei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzea (19. or.).
- 11-24/SCD-00001. 2024an Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuak egiteko dirulaguntza-deialdia (21. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00004. Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Irene Royo Ortín andreak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena aurkeztu du, eta irakurketa bakarrean izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru-lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina amaituko baita eztabaida egin behar den Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa

Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa.

ZIOEN AZALPENA

Nekazaritza hitza latinez bi terminoz dago osatuta: agri eta cultura. Lehena ager-etik dator, zeinaren esanahia landa edo lurralde baita; bigarrena colere-tik eratorria da; hots, biztandu eta landu esanahiak biltzen dituena. Bada, nekazaritzak berebiziko garrantzia dauka herrialde baten garapen ekonomiko eta sozialarentzat, ingurune desberdinetan eragiten baitu.

Izan ere, biztanleriari elikagaiak eskuratzen dizkie, enplegua sortu eta tokian tokiko ekonomia indartzen du, biodibertsitatea sustatzen du, basafauna babesten du, lagungarria da klima-aldaketa samurtzeko, natur baliabideak babesten ditu, osasuna eta ongizatea hobetzen ditu, berrikuntza eta garapen teknologikoaren pizgarri da, zeresana dauka elikadura-segurtasunean, nekazaritza-sektorearen esportazio eta inbertsioak bultzatzen ditu, merkatuan gora-beherak sortzen dituzten uzten eta zuren eskaintza areagotzen du, eta, halaber, honako funtzio hauek betetzen ditu nekazaritzak, bere garapenean:

- Funtzio ekonomikoa: kontsumo-ondasunen ekoizpena garatzen du, eta haiek ekonomia dinamizatzen dute.

- Funtzio ekologikoa: lur-kudeaketa egokia eta paisaiaren harmonizazioa lantzen du.

- Funtzio soziala: Landa-bizitza eta landa-kulturaren taxuketa garatzen du.

Hortik eratoritzen da maila guztietako administrazio publikoek –europarra, nazionala, Nafarroa-

mailakoa eta tokikoa— nekazaritza babestu eta zaintzearen garrantzia, eta administrazio guztiek horretarako lanabesak eskueran izatearena.

Herri-ondasunek zeregin muntaduna betetzen dute Foru Komunitateko nekazaritza eta landa-ingurunean; kontzeptu hori existitzen ez den beste erkidego batzuetan ez, baina bai, ordea, gure Komunitatean. Eta, Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 141. artikulua ezartzen duenez: "Herri ondasunei buruzko xedapen, administrazio, probetxamendu eraentza eta antolamendu ahalmenak toki-entitateei dagozkie", eta azken horiek arduratu behar dira herri-ondasunen ekoizpeneratze, hobetze eta aprobetxatze onenaz.

Nekazaritzarako herri-lurren aprobetxamenduak hiru modalitate desberdinetan landuko dira:

- Lehentasunezko herritar-aprobetxamenduak.
- Zuzeneko esleipenezko herritar-aprobetxamenduak.
- Toki-entitateak eginiko zuzeneko ustiapena edo enkante publikozko esleipena.

Baina kudeaketa hori legeak berak mugatua da; horrela, 149. artikulua esaten du:

"Onuradunek ordaindu beharreko kanona toki-entitateek finkatuko dute eta horren zenbatekoa zonalde horretan antzeko lurrentzat dauden errentamendu prezioen ehuneko berrogeita hamar bitartekoa izan ahalko da.

Nolanahi ere, kanonak toki-entitateari eragindako kostuak kitatuko ditu gutxienez".

Eta 152. artikulua haxe dio:

"Lurzati beharra 145.etik 151.era bitarteko artikuluen arabera bete ondoren, geratzen diren laborantzako herri-lurrak, bai eta onuradunek zuzenean eta pertsonalki lantzen ez dituzten lurzatiak ere, herritarren artean zuzenean esleituko dira, zonaldean antzeko lurrek duten errentamendu prezioaren ehuneko laurogeita hamar baino txikiagoa ez den prezioan".

Ikusten dugunez, lege honekin toki-entitateek oso aukeramen murrizta dute prezioak finka-

tzerakoan; horregatik, beharrezkoa da haiei malgutasun eta autonomia handiagoa ahalbidetzea herri-ondasunen kudeaketarako, sektoreari mesede egin eta komunitatearen onurarako izan daitezkeen; are gehiago, eguzki-plakak bezalako beste erabilera batzuetara bideratzearen ondoriozko diru-sarreraren ondorioz udalaren altxorra hazten ari denean.

Aurreko guztiaren ildotik, eta toki-entitateei herri-ondasunen prezioak ezartzeko aukeramen handiagoa ematearren, eta halatan nekazaritzaren garapena faboratze aldera, proposatzen da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea irakurketa bakarrean aldatzea, jarraian adierazitako moduan:

Lehen artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 149. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

"Toki-entitateek ezarriko dute irabaziengatik ordaindu beharreko kanona, eta horren zenbatekoa izan ahalko da zona horretan antzeko lurrentzat dauden errentamendu-prezioen ehuneko hogeita hamar bitartekoa.

Nolanahi ere, kanonak gutxienez ere berdindu egingen ditu toki-entitateak jasandako kostuak".

Bigarren artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 152. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

"Lurzati beharra 145. artikulutik 151.era bitarteko arabera ase ondoren, geratzen diren laborantzako herri-lurrak, bai eta onuradunek zuzenean eta pertsonalki lantzen ez dituzten lurzatiak ere, herritarren artean zuzenean esleituko dira, zona horretan antzeko lurrek duten errentamendu-prezioaren ehuneko berrogeita hamar baino txikiagoa ez den prezioan".

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00010. Interpelazioa, desinformazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako interpelazioa, desinformazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, desinformazioaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkezten dio Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Desinformazioaren kontzeptuaren barruan sartzen da iritzi publikoa manipulatzeko xedez hedatzen den informazio oker eta engainagarri oro eta interes politiko, ekonomiko, sozial edo dena dela-koagatik egiten den asmo gaiztoko kontakizuna.

Gaur egun ohikoa da gure konfiantzazko informazio-iturri izatea askotan fidagarritasunik ez duten hedabideak, halako moduan non sarritan jasotzen baitugu informazio faltsua eta geratzen baikara informazio faltsu hori identifikatzeko tresnarik gabe. Informazio faltsuek duten inpaktuaren adibide ugari daukagu azkenaldian, eta, izan ere, egunero jasotzen ditugu berariaz sortutako albiste faltsuak, ondorio dohakabeak dauzkatena.

Hori dela eta, desinformazioaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkezten diogu Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari.

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00149. Galdera, 2023an artatutako herritarrei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari buruz egindako gogobetetasun inkestaren metodologiari buruzkoa*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, 2023an artatutako herritarrei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari buruz egindako gogobetetasun inkestaren metodologiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak batzordean ahoz erantzun dezan:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkesta dela-eta, zer balorazio egiten duzu inkesta horretan baliatu den metodologiari buruz eta zure departamentuak emaitzei emandako tratamenduari buruz?

Iruñean, 2024ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00175. Galdera, Turkiako arnagailuei orain arte emandako erabilerari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Turkiako arnagailuei orain arte emandako erabilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00150 galderari emandako erantzunari dagokionez, zer erabilera eman zaie arnagailu horiei erosi zirenetik gaurdaino?

Iruñean, 2024ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00176. Galdera, azken ikasketa-urtean dauden BAMEek 2024ko udan izanen duten laguntza-jarduerari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, azken ikasketa-urtean dauden BAMEek 2024ko udan izanen duten laguntza-jarduerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

BAMEko azken urtean daudenek 2024ko udan izanen duten jarduerari dagokionez, zein da Osasun Departamentuaren planifikazioaren xehetasuna?

Iruñean, 2024ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00177. Galdera, Iruñeko eremu jakin batzuetan zuntz optikoko zerbitzuetarako sarbidea izateko daude arazoei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Iruñeko eremu jakin batzuetan zuntz optikoko zerbitzuetarako sarbidea izateko dauden arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko ditu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak, bere eskumenen esparruan, Iruñeko eremu jakin batzuetan zuntz optikoko zerbitzuetarako sarbide-arazoak konpontzea ahalbidetzeko, Nafarroako Arartekoaren Q23/1076 ebazpenean jasotakoarekin bat?

Iruñean, 2024ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00178. Galdera, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren agenda instituzionalari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren agenda instituzionalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gobernu Irekiaren webgunean argitaratzen den Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren zuzendari nagusiaren agenda instituzionalean zergatik ez da agertzen 2024ko apirilaren 8an Polizia Nazionalaren 200 urteei buruzko erakusketaren inaugurazioan egon zela?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00179. Galdera, kastoreek egindako kalteei buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, kastoreek egindako kalteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ingurumeneko Departamentuak Nafarroako zein eremutan antzeman ditu kastoreekin lotutako arazoak? Zer neurri hartu dira eremu bakoitzean eta zein da ukitutako eremu bakoitzak duen kastrore-kopurua?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n.

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-24/PES-00180. Galdera, Tuterako ospitalerako ohe elektrikoen lizitaziorako prozesuari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Tuterako ospitalerako ohe elektrikoen lizitaziorako prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Aurrekontuen Legeak partida bat jasotzen du, 545000 52400 6059 312806-Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua Tuterako Osasun Barrutian ohe eta anda elektrikoak erosteko izenekoa, 270.000,00 euro egiten dituen.

Hori dela-eta, parlamentari honek honako galdera hauek egiten ditu:

– Zer arazo edo eragozpen ditu Osasun Departamentuak Tuterako Osasun Barrutirako ohe eta anda elektrikoen berritzearen lizitazio-prozedura abiatu ez izateko?

– Zer aurreikuspen du Osasun Departamentuak partida hori lizitatzeko eta zer epetan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

11-24/PES-00181. Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoa gainbegiratzeari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoa gainbegiratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2020ko maiatzaren 18ko bilkuran erabaki zuen, Navarra Suma talde parlamentarioak eskatuta, Kontuen Ganberari fiskalizazio txosten bat eskatzea "Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoa sortzeko prozedurari eta haren funtzionamenduari buruz". Txosten horretan, Ganberak gomendio batzuk egin zituen, besteak beste:

"(...) eta, beste alde batetik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak etengabeko ikuskapena egin behar du, egiaztatzeko entitatea sortzea eragin zuten arrazoiak ez direla desagertu, baita, entitateak bere jarduerarekin lortutakoari dagokionez, jasangarritasun finantzarioa duela ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko mar txoaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritakoarekin bat".

Nola egiten ari da ikuskapen hori Ekonomia eta Ogasuneko Departamentua? Zer tresna erabiltzen ari da horretarako?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00182. Galdera, Nafarroako Kontuen Ganberak egindako gomendioari buruzkoa, fundazio publikoaren figura erabiltzekoa berez bat datorrenean haren izaera juridikoarekin

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroako Kontuen Ganberak egindako gomendioari buruzkoa, fundazio publikoaren figura erabiltzekoa berez bat datorrenean haren izaera juridikoarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2020ko maiatzaren 18ko bilkuran erabaki zuen, Navarra Suma talde parlamentarioak eskatuta, Kontuen Ganberari fiskalizazio txosten bat eskatzea “Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoa sortzeko prozedurari eta haren funtzionamenduari buruz”.

Txosten horretan, Ganberak gomendio batzuk egin zituen, besteak beste:

“Fundazio publikoaren figura erabiltzea berez bat datorrenean haren izaera juridikoarekin”.

Nola ulertzen du gomendio hori Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuak? Zer tresna erabiltzen ditu hori horrela izatea bermatzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00183. Galdera, Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoaren jardueraren helburuen betetzea ebaluatzeko eraginkortasun-kontrolari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoaren jardueraren helburuen betetzea ebaluatzeko eraginkortasun-kontrolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Eskubide

Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2020ko maiatzaren 18ko bilkuran erabaki zuen, Navarra Suma talde parlamentarioak eskatuta, Kontuen Ganberari fiskalizazio txosten bat eskatzea “Gizarte Zerbitzuen Fundazio Publikoa sortzeko prozedurari eta haren funtzionamenduari buruz”. Txosten horretan, Ganberak gomendio batzuk egin zituen, besteak beste:

“Zerbitzuak era horretara emateko modua egokiena den aztertzea ikuspegi bikoitz batetik. Batetik, Eskubide Sozialetako Departamentuak eraginkortasuna kontrolatu behar du entitatearen jardueraren helburuak nola bete diren eta baliabideak behar bezala erabili diren ala ez ebaluatzeko”.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua nola egiten ari da eraginkortasunaren gaineko kontrola entitatearen jardueraren helburuak nola bete diren ebaluatzeko? Zer tresna erabiltzen ari da horretarako?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00184. Galdera, hidrokarburoen gaineko zergaren kuotak itzultzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, hidrokarburoen gaineko zergaren kuotak itzultzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

2010erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legearen azken xedapenetako hamalagarrenak 52. artikulua berri bat sortu zuen Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean. Artikulu horretan, eskubidea aitortzen da Hidrokarburoen gaineko zerga ordaindu duen gasolioa erosteagatik nekazariak eta abeltzainak ordaindu edo jasan dituzten Hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa partziala jasotzeko.

Nekazariak eta abeltzainak gasolioa erosteagatik jasan dituzten Hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten zati bat itzultzeko prozedura ezartzen duen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren maiatzaren 17ko 47/2010 Foru Aginduaren 1. artikuluan ezarritakoaren arabera,

Nafarroako Foru Komunitateari dagokio nekazariak eta abeltzainak gasolioa erosteagatik ordaindu edo jasan dituzten Hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa izapidetzea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 8. artikuluan ezarritako arauekin bat, baldin eta onuradunak bere zerga-egoitza Nafarroako lurraldean izan badu itzulketa-aren eskaerari dagokion denbora-aldian.

Itzulketa-aren zenbatekoa honela kalkulatu da: 1.000 litroko 63,71 euroko tasa aplikatu da adierazitako aldi nekazaritzan (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) benetan erabiltako gasolio-bolumenak osatzen duen oinarriari, litroak milakotan adierazita.

1. 2010etik 2022ra bitarte –urteka adierazita–, zer diru-kopuru itzuli du Nafarroako Ogasunak Nafarroan Hidrokarburoen gaineko zerga ordaindu duen gasolioa erosteagatik nekazariak eta abeltzainak ordaindu edo jasan dituzten Hidrokarburoen gaineko zergaren kuotez bezainbatean?

2. Urte horietan, zenbat subjektu pasibo –urteka adierazita– izan dira Hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten itzulketa partzialaren onuradunak?

3. 2024rako zerga-onuren aurrekontuetan aurreikusten da horien kostua Hidrokarburoen gaineko zergari dagokionez 63 milioi euro baino gehiago izatea. Zerga-onura horien zein zati dagokio nekazariak eta abeltzainak zerga horrenagatik ordaintzen dituzten kuoten itzulketa partzialari?

4. Zer dela-eta aurreikusten da % 28,55eko igoera egotea Hidrokarburoen gaineko zergaren zerga-onuretan, alegia, 49 milioi eurotik 63 milioi eurora?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00185. Galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, idatziz erantzun dezan:

Noiztik zenekien Fiskaltza ikertzen ari zela Lurralde Kohesiorako Departamentuak egin duen luminarien kontratazioa?

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/PES-00186. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak luminarien kontratazioari buruz Fiskaltzak egindako ikerketaren berri izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, idatziz erantzun dezan:

Noiztik zekien Chivite andreak Fiskaltza ikertzen ari zela Lurralde Kohesiorako Departamentuak egin duen luminarien kontratazioa?

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/PES-00187. Galdera, etxegabetasunaren aurka borrokatzeko Nafarroako Estrategiaren prestaketari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, etxegabetasunaren aurka borrokatzeko Nafarroako Estrategiaren prestaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak aurreikusita al du Etxegabetasunaren aurka borrokatzeko Nafarroako estrategia bat egitea? Hala bada, noizko espero duzue prest egotea?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/PES-00188. Galdera, “Erorien Monumentua” izenez ezagutzen den multzo arkitektonikoari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, “Erorien Monumentua” izenez ezagutzen den multzo arkitektonikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aur-

kezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

1. “Erorien Monumentua” izenez ezagutzen den Iruñean eraiki zen multzo arkitektonikoa interes kulturalako ondasun gisa deklaratu al dago Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legeak adierazten duen moduan?

2. Ondasun higiezin inbentariatu gisa deklaratu al dago foru-lege horrek adierazten duen moduan?

3. Iruñeko Udal Planaren babes-katalogoan 2. graduan (barneko espazioa, kripta eta estalkia) eta 3. graduan (albo-arkuteriak) jasota dagoenez, 14/2005 Foru Legearen 22. eta 24. artikuluetan aurreikusitako babes-araubidea bakarrik aplikatu al dakioke, garrantzi lokaleko ondasunak izanik?

4. Garrantzi lokaleko ondasuntzat jotzen denez, nahikoa al litzateke Iruñeko Udalak Udal Planaren Babes Katalogoan sartzeari uztea, garrantzi lokaleko ondasun izendapen hori galtzeko, baita edozein babes-maila ere, eta, beraz, haren gainean libreki jardun ahal izateko?

5. Garrantzi lokaleko ondasunaren deklarazioa azkentzeko beharrezkoa al da Vianako Printzearen txostena, Iruñeko Udalak hura Udal Planaren babes-katalogotik ateratzeaz gain?

6. Iruñeko Udalak multzo arkitektoniko hori aipatu katalogotik kanpo utziko balu, Kulturaren arloan eskumena duen Departamentuaren

txostenak zein zentzu izanen luke: Udalaren borondatea errespetatuta garrantzi lokaleko ondasunaren izaera azkentzearen aldekoa ala horren aurkakoa?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00189. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren maskara kirurgikoei, FFP2 eta FFP3 maskareei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren maskara kirurgikoei, FFP2 eta FFP3 maskareei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 zituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak COVID-19aren pandemia hasi aurretik?

– Zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 erosi ziren COVID-19aren pandemiak iraun zuen bitartean (pandemiaren hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu zen arte), zer enpresari edo entitateri eta zer kostu ekonomikoarekin?

– Zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 jaso zituen Nafarroak dohaintzan COVID-19aren pandemiak iraun zuen bitartean (pandemiaren hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu zen arte), eta zein enpresa edo entitate-
ren eskutik?

– Pandemian erositako zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 iraungi dira erabiliak izan gabe eta zer egin da horiekin?

– Pandemian dohaintzan jasotako zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 iraungi dira horiek erabili gabe eta zer egin da horiekin?

– Zenbat maskara kirurgiko FFP2 eta FFP3 erosi dira pandemia amaitu zenetik gaur egun arte?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00190. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabili eta botatzeko mediku- edo ospitale-mantalei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabili eta botatzeko mediku- edo ospitale-mantalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Erabili eta botatzeko zenbat mediku- edo ospitale-mantal zituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak COVID-19aren pandemia hasi aurretik?

– Erabili eta botatzeko zenbat mediku- edo ospitale-mantal erosi ziren COVID-19aren pandemiak iraun bitartean (pandemiaren hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu zen arte)?

– Zenbatekoa izan zen erosketa horien kostu ekonomikoa?

– Zein enpresari erosi zitzaizkien mantal horiek?

– Erabili eta botatzeko zenbat mediku- edo ospitale-mantal eman zitzaizkion dohaintzan Nafarroari COVID-19aren pandemiak iraun bitartean (pandemiaren hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu zen arte)?

– Pandemian erositako edo dohaintzan jasotako erabili eta botatzeko zenbat mediku- edo ospitale-mantal iraungi dira erabili gabe? Zein izan zen horien kostu ekonomikoa eta zer egin da horiekin?

– Erabili eta botatzeko zenbat mediku- edo ospitale-mantal erosi dira pandemia amaitu zenetik gaur egun arte eta zein izan da horien kostu ekonomikoa?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00191. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arnasgailuei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko arnasgailuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat arnasgailu zituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak COVID-19aren pandemia hasi aurretik?

– Zenbat arnasgailu erosi ziren COVID-19aren pandemiak iraun bitartean (hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu arte)?

– Zenbatekoa izan zen arnasgailu horien kostu ekonomikoa?

– Zer enpresari erosi zitzaizkien?

– Zenbat arnasgailu jaso zituen Nafarroak dohaintzan COVID-19aren pandemiak iraun bitartean (hasiera ofizialki deklaratu zenetik bukaera ofizialki deklaratu arte)?

– Pandemiaren nola erabili ziren Nafarroak erosi eta/edo dohaintzan jasotako arnasgailu guzti-guztiak eta, kasua bada, non erabili ziren zehazki?

– Pandemiaren ondoren nola erabili ziren Nafarroak erosi eta/edo dohaintzan jasotako arnasgailu guzti-guztiak eta, kasua bada, non erabili ziren zehazki?

– Zenbat arnasgailu erosi dira COVID-19aren pandemia bukatu zenetik orain arte eta zenbateko kostu ekonomikoarekin? Haietako zenbat erabiltzen ari dira eta non?

Iruñean, 2024ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Caja Navarra Fundazioko presidentek, 2024ko martxoaren 27ko idazkiaren bidez, Nafarroako Parlamentuari jakinarazi dio Pilar Aramburo González patronatuko kideak, zeina Nafarroako Parlamentuak 2022ko ekainaren 9ko osoko bilkuran hautatua izan baitzen, karguari uko egin diola.

Nafarroako Parlamentuak hautatuko du Patronatuko kide hori, hala badagokio, Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutuetan eskatzen diren betekizun orokor eta espezifikoak betetzen direla ziurtatzeko ezartzen diren arau eta irizpideekin bat etorriz.

Estatutuen 22. artikulua arabera, Patronatuko kideak hautatzean eta izendatzean, ez da inolako diskriminaziorik eginen, eta ahaleginak eginen dira Patronatuaren osieran bi generoen presentzia paritarioa izan dadin, Zenbait Fundazioren Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legearen 3.6. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko hautaketa ziurtagiri bidez frogatuko da, idazkariak edo Nafarroako Parlamentuan ziurtagiriak emateko eskumena duen organoak emana.

Legebiltzarreko Erregelamenduan ez da Aramburo andrea ordeztuko duen patronatukidea hautatzeko prozedurarik aurreikusten; beraz, Erregelamendu horren 42.1.9 artikuluan ezarritakoaren babesean, bidezkoa da Mahaiak arauak onetsi ditzan, Eledunen Batzarrarekin bat, Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuan Nafarroako Parlamentuak izendatzekoa den kide berriaren hautespenari buruzkoak.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du, Fundazioaren Estatutuetan jasotzen diren xedapenekin bat.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42.1.9 artikuluan ezarritakoarekin

bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak hautatzekoa den Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kidea aukeratzeko prozesua hastea.

Bigarrena.- Honako arau hauek onestea:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatuko du.

2. Hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Adinez nagusia izatea eta ez egotea epailearen ebazpen bidez ezgaitua.

b) Desgaitua ez egotea kargu edo eginkizun publikoak betetzeko edo ondasunak administratzeko.

c) Ospe profesional egiaztatua, jakintza eta esperientzia izatea fundazioaren xedeekin zerikusia duten arloetan: soziala, kulturala eta ekonomiko-finantzariora.

Ulertuko da hautagaiek beharrezkoa den ospe profesionala, jakintza eta esperientzia dutela erakundearen kudeaketa arduratsu eta zuhurra egiteko gaitasunari buruzko zalantzarik sortzen ez duen jokabide pertsonal eta profesionala erakutsi dutenean.

d) Hurrengo arauan jasotzen den debeku edo bateraezintasunetakoren baten aplikaziopean sarturik ez egotea.

3. Ezin izanen dira Patronatuko kide hautatu, ezta izendatu ere, Zenbait Fundazioren Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legearen 3.3. artikuluan aurreikusitako egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

a) Desgaituak izan diren konkurtsopekoak, desgaitasun-aldia amaitu ez den bitartean.

b) Kargu publikoetan aritzeko desgaiakuntza orokorra edo berezia dakarren zigorrera kondenatuak.

c) Administrazio publikoen zerbitzuko langileak, fundazioei dagozkien jarduerekin zuzeneko zerikusia duten eginkizunak baldin badituzte.

d) Karguetarako hautatzen dituzten unean edo karguetan aritu bitartean fundazioarekin zorrak dituztenak, mugaeguneratuak eta galdagarriak, edozein motatakoak.

e) Fundazioaren aurka auzitegietan edozein erreklamazio dutenak, salbu eta lan-arloko erreklamazioak edo patronatuko kideek aurkezten dituztenak.

f) Lau merkataritza-sozietate edo entitate korporatibotan baino gehiagotan administrazio kontseiluko edo pareko organoko kide direnak. Salbuesten dira Fundazioaren ordezkari bezala edo hark hautaturik betetzen diren karguak.

g) Lotura dutenak fundazioarekin edo sozietate edo banku entitateekin, baldin eta sozietate edo banku entitate horietan fundazioak kapitalaren ehuneko hogeitik gorako partaidetza badu obra-, zerbitzu- nahiz hornidura-kontratuaren bidez edo ordaindutako lanaren bidez. Bateriaezintasun hori halaber helduko da ezkontide eta horien parekoengana, eta halako sozietateetara non patronatukideak, zuzenean edo zeharka, ehuneko hogeiki baino gehiagoko partaidetza duen, berak bakarrik edo bere ezkontidearekin, aurreko nahiz ondoko ahaideekin batera, edo lehendakari, kontseilari delegatu edo horien pareko karguak betetzen dituztenekoetara.

h) Patronatukide, lehendakari, kontseilari, administratzaile, zuzendari, kudeatzaile, aholkulari edo antzeko kargu edo lanpostua dutenak banku entitateetan edo banku entitateen fundazio edo erakundeetan.

i) Hautespen bidezko edozein kargu politikoa dutenak Europar Batasuneko, Estatuko, autonomia erkidegoetako edo Nafarroako Foru Komunitateko edo tokiko erakundeetan.

j) Goi kargua dutenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, Estatuko Administrazio Orokorrean, Toki Administrazioan edo horiekiko lotura edo mendekotasuna duten sektore publiko entitateetan, zuzenbide publikoak nahiz pribatukoak izan.

k) Betearazpen edo zuzendaritza kargua dutenak alderdi politikoa, enpresa elkarte edo sindikatu batean.

Arau honetako g), i), j) eta k) letretan adierazitako bateraezintasunak mantendu eginen dira kasuko lotura edo zerrendaturiko karguetako edozeinetako kargudun-izaera bertan behera gelditzen den egunaren ondoko bi urteetan.

4. Talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak hautagaitza bakarra aurkeztu ahal izango dute.

Hautagaitzak aurkezteko, talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari, non jasota ageriko baita proposatutako hautagaien onarpena, otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legean eta Fundazioaren estatutuetan kargua betetzeko ezarritako baldintzak betetzeari buruzko adierazpena eta arestian aipaturiko bateraezintasun edo debeku-egoeretako batean ere ez dagoela egiaztatzen duena, bai eta hautagaiaren profilarren txosten bat, ospe profesionala, jakintza eta esperientzia dutela egiaztatzen duena.

Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak Patronatuko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko apirilaren 25eko 17:30ean bukatuko da**.

Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak haiek kalifikatu eta aldarrikatu ditu.

5. Patronatuko kide berriaren hautaketa Legebiltzarren Osoko Bilkuran eginen da, isilpeko bozketaren bidez.

Txartelen bidez eginen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak izen bakarra jartzen ahalko du txartelean.

Mahaiak boto-kontaketa eginen du, eta boto gehien eskuratu dituen hautagaia hautatu dela aldarrikatu du.

6. Hautaketan eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bigarren bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan badirau, boto-kopuru bera duten hautagaien arteko hirugarren bozketa bat eginen da; eta berriro ere berdinketa gertatuz gero, hautaketa-prozedura amaitu dela deklaratu da eta prozedura berri bati ekinen zaio.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/SCD-00001. 2024an Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuak egiteko dirulaguntza-deialdia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafar gizarteak askotan erakutsi izan du behartsuenekiko elkartasuna; ildo horretan, urrats garrantzitsuak egin dira, bai araugintzaren alorrean, bai zeregineko exekutiboetan.

Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren oroitzapenerako ekitaldien artean, eta talde parlamentario guztien baterako elkarlari esker, Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeko kideek Pobreziaren eta Desberdinkeriaaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) sinatu zuten Gizarte Entitateen Plataformarekin. Itunaren helburua da, besteak beste, aurrera egitea Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 2015eko irailean onetsitako Garapen Jasangarri-rako 2030 Agendak ezarritako norabidean. Pobreziaren eta Desberdinkeriaaren aurkako Nafarroako Itunean (2021-2030) jasotakoari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuaren 2024ko ekitaldirako aurrekontu osotik % 0,7 bideratzen da Garapenerako Hezkuntzaren alorreko proiektuak eta sentsibilizazio-ekintzak aurrera eramateko dirulaguntzetarako dei egitera.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea da Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntza guztietarako araubide amankomuna ezartzen duena, eta bertan adierazten dira printzipio orokorrak, bai eta dirulaguntzak erabaki eta kudeatzeko eta haien jarraipen eta kontrola egiteko prozedura ere. Horiek horrela, Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuak egiteko dirulaguntzen araubidea ezartzen duten oinarriak ezarri eta argitaratu beharra dago, horrela bermatze aldera bete egiten direla, dirulaguntza horietan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritako printzipioak.

Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du, 2024ko ekitaldian zehar Garapenerako Hezkuntzako proiektuak eta sentsibilizazio-ekintzak egiteko dirulaguntzen deialdiaren eta horren oinarri arautzaileen onespenerako (11-24/SDC-00001). Espedientea txosten juridikoarekin eta Kontu-hartzailetzak egindako gastu-fiskalizazioarekin osatu da.

Horiek horrela, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 42. artikuluan ezarritakoari

jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak honako hau ERABAKITZEN DU:

1. 2024ko ekitaldian zehar Garapenerako Hezkuntzako proiektuak eta sentsibilizazio-ekintzak egiteko dirulaguntzen deialdia onestea.

2. Guztira 112.000 euroko gastua baimentzea, Nafarroako Parlamentuaren 2024ko ekitaldirako gastu-aurrekontuko "Garapenerako eta elkartasunerako jardueretarako dirulaguntzak" 48207 partidaren kargura.

3. Deialdiaren oinarri arautzaileak onestea, erabaki honen eranskinean jasoak.

4. Agintzea erabaki hau eta bere eranskinak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen.

5. Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuaren esku uztea oinarri arautzaileak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuak izateko beharrezkoak diren izapideak egitea.

6. Erabaki hau eta bere eranskinak helaraztea Nafarroako Parlamentuko Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuari eta Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari.

Iruñean, 2024ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANSKINA

Oinarri arautzaileak, 2024ko ekitaldian zehar Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdiarenak

Lehena. Xedea eta helburua:

Nafarroako Parlamentuak aurreko ekitaldieta-ko bidetik jarraitzen du eta, ahal duen neurrian, laguntzen du garapen jasangarriko helburuak lortzen eta mundu zuzenagoa, baketsuagoa, tolerantetagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa eraikitzen. Xede horrekin, dirulaguntza-deialdi hau onetsi du, Nafarroan Garapenerako Hezkuntzako eta sentsibilizazioko esku-hartzeak egiteko. Esku-hartzeen helburua izanen da garapen-bidean dauden herrialdeek pairatzen dituzten problemekin zerikusia duten alderdietan eta horien zergatietan sentsibilizatu edo prestakuntza ematea, eta mundu globalizatuari buruzko ulermena erraztea,

jarrera kritikoa eta errealitatearekin konprometitua ernaraziz, txirotasunaren aurkako borrokarekiko konpromisoa eta erantzukidetasuna sortuko dituen. Nazio Batuen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendan ezarrita dituen Garapen Jasangarriko Helburuetakoren bat garatu beharko dute esku-hartzeek.

Horretarako 112.000 euro bideratuko dira, Nafarroako Parlamentuaren 2024ko ekitaldirako gastu-aurrekontuan berariaz onetsitako partida honetatik: 48207 “Garapenaren eta elkertasunaren arloko jardueretarako dirulaguntzak”.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.1. artikularekin bat etorritz, deialdia norgehiagoka-araubidean izapidetuko da.

Bigarrena. Entitate onuradunak:

Honako betekizun hauek betetzen dituzten entitateak izan ahalko dira dirulaguntzaren onuradunak:

- Bere izaeraren arabera legez eraturako pertsona juridiko izatea, eta inskribatuta egotea Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziarena den Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundearen Erregistroan (AECID).

- Nafarroan egoitza soziala edo ordezkari izatea.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuaren azaltzen diren egoeretakoa batean ere ez egotea.

- Sexu edo generoa dela-eta diskriminatzailerik ez diren lan-arloko jokabideak gauzatu edo toleratzeagatik zehatuta edo zigortuta ez egotea administrazio-ebazpen irmoz edo epai judicial irmoz.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 8.3 artikuluan arabera, onuradun izan ahalko dira, halaber, elkartzat aurkeztzen diren entitateak, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badituzte eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 8.3 artikuluan ezarritakoa betetzen badute.

Hirugarrena. Esku-hartzearen betekizunak:

- Helburu gisa edukitzea lehen oinarrian jasotakoa.

- 2024ko ekitaldian exekututzea. Hala ere, dirulaguntzaren xede den jarduna ohikotasunez garatzen den urte-aldia ez datorrenean bat aurrekontu-ekitaldiarekin –esaterako, eskola-ikasturtea–, jarduera horretarako dirulaguntzak urte-aldi horretara moldatzen ahalko dira eta, halakoetan,

zilegi izanen da jarduera 2025eko ekainaren 30erako amaitzea.

- Jarduerak Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan egiten dira.

- Nafarroako Parlamentuak diruz laguntzeko gehieneko zenbatekoa: 13.000 euro.

Esku-hartzearen gauzatzea aldrebesten edo zailtzen duten gorabeherak gertatuz gero, zilegi izanen da jarduera horiek egiteko epeak luzatzea. Horretarako, epea luzatzeko eskaera bat aurkeztu beharko dute, azaltzen duena esku-hartzea zergatik ezin den gauzatu hasiera batean aurreikusitako epean, bai eta esku-hartzea amaitzeko epe berria ere. Eskaera telematikoki egiten da, Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa horretarako prestatutako sarbidean -Administrazio-izapideak-Dirulaguntzak eskatzea Edonola ere, jarduerak egiteko gehieneko epea 2025eko ekainaren 30ean amaituko da.

Laugarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna:

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira jarduera garatzeko lor litezkeen beste batzuekin, berdin delarik haien emaileak beste administrazio publiko batzuk, beste entitate publiko nahiz pribatu batzuk edo partikularrak izatea, nazionalak zein nazioartekoak.

Ezein kasutan ez da zilegi izanen emandako dirulaguntzen zenbatekoa hainbestekoa izatea non, bere horretan nahiz beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuei edo dirulaguntzaren xede den jardueraren baliabide berekiei batuta, gainditu egiten bailuke onuradunak egin beharreko jardueraren kostua.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea:

Eskatzailerik den entitate bakoitzak gehienez eskaera bat aurkeztu ahalko du. Eskaeratzat joko dira bai bakarka aurkeztuak bai entitate-elkarte baten parte izanik aurkeztuak. Entitate batek bakarkako eskaera bat eta beste entitate batzuekiko elkartearen eginiko beste bat aldi berean aurkeztu baditu, bi eskaera horiek deialditik kanporatuak izanen dira.

Eskaera entitate interesdunaren legezko ordezkariak aurkeztuko du, telematikoki, Parlamentuaren egoitza elektronikoa horretarako prestatutako sarbidean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun balioduneko epean gehienez ere.

Seigarrena. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Dirulaguntza eskatzeko, Egoitza Elektronikoa ezartzen den eskabidea beteko da, deialdian adierazitako ereduaren arabera (I. eranskina), eta bertan entitate eskatzaileak adierazi behar du bigarren oinarrian ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela.

Eskatzaile diren entitateek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

I) Dokumentazio orokorra:

a) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziakoa den Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean kokatuta dagoen ordezkariaren edo egoitzaren aipamenarekin. Urtebete baino gutxiagoko aurrendenboraz jaulkitakoa izanen da, aurrendenbora hori deialdi hau argitaratzen denetik zenbatuta.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, entitatearen ordezkariak digitalki sinatua, non adieraziko baita ezen eskatzaile den entitateak bete egiten dituela erakunde onuradunaren izaera lortzeari begira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako betekizunak (II. eranskina).

c) Entitate-elkarteen kasuan, entitate bakoitzaren dokumentazio banakatuaz gain, honako hauek aurkeztuko dira:

c.1) Entitate-elkarteen eratze-agiria. Elkartek nortasun juridiko berekirik ez badu, eratze-agirian espresuki jaso beharko da ahalordedun edo ordezkari bakarraren izena, zeinak izanen baitu elkarteak onuradun gisa izanen dituen betebeharrak betetzeko bezainbesteko ahalordea. Halaber jaso beharko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean aurreikusitako preskripzio epea amaitu arte elkarteak ez desegiteko konpromisoa.

c.2) Honako hau azaltzen duen agiria: elkarteko entitate bakoitzak proiektuaren exekuzioan zer funtzio eta eginkizun hartuko dituen bere gain, horiek egiteko konpromisoarekin, elkarteen izenean eta haren kontura; eta elkarteko entitate bakoitzari aplikatuko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa.

d) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera, baldin aldez aurretik aurkeztu ez bada, edo aldatu egin bada Nafarroako Parlamentuak iraganean emandako dirulaguntzak ordaintzeko erabili izan den banku-kontua.

e) Emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa aldez aurretik ordaindu beharrekoa den kasuetako entitateei dagokienez, 9.1 oinarrian aipatutako dokumentazioa aurkeztuko da.

Eskaerak ez baditu ezarritako betekizunak betetzen, interesdunari esanen zaio ezen hamar eguneko gehieneko epean akatsa zuzendu edo aginduzkoak diren dokumentuak aurkeztu behar dituela, eta orobat ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela joko dela, aurrez ebazpena emanda, zeina jaulki beharko baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako moduan.

Baloraziorako aurkezten den dokumentazioa inoiz ere ez da zuzendua izanen.

II) Baloraziorako dokumentazioa:

A. Esperientzia:

a. Zerrendadun taula, azken lau urteetan administrazio publikoek finantzatutako Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko proiektuena (III. eranskina).

b. III. eranskinean adierazitako dirulaguntzak emateko ebazpenaren kopia, edo agiri baliokidea.

B. Estrategia instituzionala:

a. Baloratu beharreko atalak zehazten dituen agiria (IV. eranskina).

b. Baloratu beharreko jarduketak justifikatzen dituen dokumentazio estrategikoaren kopia.

C. Esku-hartzearen oroitidazki teknikoa, gutxienez ere V. eranskinak zehazten duen informazioa eduki beharko duena. Hura transkribatzeko, Arial 11 letra eta 1 lerroarte erabiliko dira. Hori idaztean, berdintasunezko eta ez-bazterkeriazko hizkera erabili beharko da. Pertsonen buruzko datu guztiek sexuaren arabera bereizita egon beharko dute.

D. Esku-hartzearen oroitidazki ekonomikoa (kalkulu liburua, Excelen).

Zazpigarrena. Dirulaguntza emateko prozedura antolatzeko, instruitzeko eta ebazteko eskumena duten organoak:

Prozedura antolatuko da Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokoretako eta Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko teknikariek osatutako balorazio-batzorde baten eskutik. Organo kideaniztun horrek izanen du eskaerak ebaluatzeko ardura, eta emanen duen irizpena loteslea izanen da.

Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua izendatzen da instrukzio-organo. Instrukzio-organoak, eskaeren ebaluazioa ikusirik, ebazpen-proposamena eginen du.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak berariaz hartutako erabakiaren bidez ebatziko da dirulaguntzen ematea, instrukzio-organoak proposatutako txostena oinarri hartuta.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabete igarotakoan ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi dela ulertu ahalko da.

Zortzigarrena. Entitate onuradunen betebeharrak:

Dirulaguntza jasotzen duten entitateek betebeharrak izanen dituzte:

a) Esku-hartzea beren eskaeran deskribatu duten moduan egitea.

b) Betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela frogatzea Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzen badituzte, horren berri ematea Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari.

d) Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena jaulkitzen den unean beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik edukitzea.

Behin deialdia ebatzita, entitate onuradunei eskatuko zaie aurkez ditzatela ebazpenaren egunean indarrean dauden ziurtagiri positiboak, kasuko Ogasunak (Nafarroako Foru Ogasuna eta/edo Estatuko Ogasuna eta/edo Foru Ogasunak) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak jaulkiak, hurrenez hurren frogatuko dutenak entitate onuradunak beterik dituela bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

e) Nafarroako Parlamentuarekin elkarlanean proiektuaren berri zabaltzea, Nafarroako iritzi publikoa garapenerako lankidetzari buruz sentikortzeko.

Nafarroako Parlamentuak entitate onuradunei dei egiten ahalko die, Nafarroako Parlamentuan egiten den ekitaldi publiko batean parte har dezaten. Ekitaldi horretan, entitate onuradun guztiek aurkeztuko dute diruz lagundutako proiektuaren exekuzioa.

f) Baimena eskatu eta edukitzea, diruz lagundutako jarduketan aldaketak egin ahal izateko,

entitate onuradunaren kontroletik at dauden inguruabarrengatik hasierako jarduketa aldatu behar denean helburuetan eta emaitzetan eraginik, edo aldaketak aurrekontuaren aldaketa bat dakarrenean, partida bakoitzaren exekuzioan gastuen igoera bat ekartzen duena, partida bakoitzerako onetsitako aurrekontuaren % 20 baino gehiagokoa.

Zazpigarren oinarrian aipatzen den balorazio batzordeak ebatziko du aldatze-eskaera. Eskaera egoitza elektronikoaren bidez egiten da, horretarako ezarritako atalean.

g) Jarduerak egiteko erabiltzen dituzten baliabideetan eta materialetan agerraraztea Nafarroako Parlamentuak finantzatuta egiten direla jarduerak.

Nafarroako Parlamentuak ez du bere gain hartzen proiektuaren exekuzioa dela-eta argitaratutako materialen edukia.

h) Onartzea egiaztapen- eta kontrol-jarduketak egin ditzan organo dirulaguntza-emaileak.

i) Jasotako funtsak zertarako erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, egiaztapen- eta kontrol-jarduketetarako beharrezkoak izan daitezkeen bitartean.

j) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.

k) Entitate onuradunak eman zaion dirulaguntzari uko egitea erabakiz gero, bi hilabeteko epean egin beharko du uko, laguntza eman zaiola jakinarazi zaion egunetik zenbatuta, Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoan aurkeztutako idazki baten bidez.

Itzuli egin beharko du alde aurretik ordaindutako zenbatekoa, Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzutik adieraziko zaion prozeduraren bidez. Zilegi izanen da uko eginiko zenbatekoa esleitzea, behin Nafarroako Parlamentuak jasota, hamaikagarren oinarrian eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu arren aurrekontuan diru erabilgarri aski ez egoteagatik laguntzarik eskuratu ez duten proiektuei.

Bederatzigarrena. Dirulaguntzaren aurrerakina, ordainketa eta justifikazioa:

1. 1. Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, baliabide nahikorik ez izatea behar bezala frogatzen duten entitateen kasuan, dirulaguntzaren ordainketa bakar eta aurreratua egiten da, diruz lagundutako jarduera behin-behinekoz finantzatzeko. Horretarako, eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsita, entitatearen

edo elkartearen ordezkariak digitalki sinatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, zeinean adieraziko baitu jarduera egiteko baliabide nahikorik ez dagoela.

2. Gainerako entitateei alde zuzeneko ordainduko zaie emandako dirulaguntzaren % 60 adinako zenbatekoa. Emandako dirulaguntzaren zenbateko osora iritsi artekoa diruz lagundutako proiektua amaitutakoan ordainduko da, ordainketa bakarrean. Aldez aurretik, entitate onuradunak justifikatu egin beharko du egindako jarduera.

Dirulaguntzaren alde zuzeneko ordaintzea deialdi hau ebatzearekin batera egingen da.

Dirulaguntza egiazki ordaintzeko, beharrezkoa izanen da entitateak aurkeztua izatea transferentzia-abonua eskatzeko agiria, diru-sarrera egin behar den banku-entitateak datuz behar bezala beteta.

3. Esku-hartzea amaitu eta gehienez ere ondoko hilabetean aurkeztuko da haren justifikaziorako dokumentazioa, eta honako agiri hauek bilduko ditu:

- Entitate onuradunaren legezko ordezkariak digitalki sinaturiko erantzukizunpeko adierazpena, justifikazio-txostena osatzen duten agirietan jasotako datu guztien egiazkotasunari buruzkoa.

- Esku-hartzearen oroitidazki teknikoak, dagozkion egiaztapen-iturriekin, hala behar denean.

- Oroitidazki ekonomikoa, non azalduko baita esku-hartzearen aurrekontuaren betearazpena. Halaber, kalkulu-orri bat aurkeztuko da, exekuzioan eginiko gastu guztiak xehakaturik eta adierazita zer jarduerari dagozkion eta nor den finantzatzailea.

- Nafarroako Parlamentuaren dirulaguntzaren kargura eginiko gastu eta ordainketa guztien ziurtagiriak. Gastuak frogatzeko, fakturak eta ordainagiriak aurkeztuko dira, edo gainerako frogagiri baliokideak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak direnak edo eraginkortasun administratiboa dutenak. Langileen gastuak frogatzeko, hilabeteko laburpenak ere aurkeztuko dira, proiektuari egozten zaion pertsona bakoitzaren ordutegi eta jarduerarekin.

Agiri guztiek eginbide-zigilua izango dute, eta bertan adieraziko da Nafarroako Parlamentuak finantzatu dituela jarduerak. Eginbideak jasoko ditu, gutxienez, "Nafarroako Parlamentuak finantzatua" aipua eta Nafarroako Parlamentuak emandako dirulaguntzaren kargura finantzatutako zenbatekoa edo ehunekoa.

Nafarroako Parlamentuarena ez den finantzetarekin eginiko gastuen kasuan, entitateak berak jaulkitako ziurtagiri bat aurkeztuko da, funts pribatuen kasuan, edo zenbatekoa eta proiektua zehazten dituen aldeko ebazpenaren kopia, bestelako dirulaguntza publikoen kasuan.

- Berariazko adierazpena: ea proiektuak beste laguntza edo dirulaguntzarik jaso duen, eta, baiezkoan, jasotako zenbatekoen eta horien jatorrien xehetasunak.

Aurkeztutako agirietan oinarrituta, balorazio-batzordeak egin den jardunari eta horren justifikazioari buruzko txosten bat bidaliko dio instrukzio-organoari. Txosten horri jarraikiz, instrukzio-organoak proposamena egingen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, exekutaturiko ekintzaren justifikazioa onets dezan kasua bada, justifikazioa onets eta ordainketa agin dezan, edo bestela itzulketa-espeditente bati ekitea proposa dezan, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 35. artikulua ezarritakoaren arabera.

Hamargarrena. Dirulaguntzaren diren gastuak:

- Dirulaguntzaren diren gastuak jotzen dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zabalduz gabe erantzuteaz gain jarduera hura burutzeko ezarritako epearen barruan egiten direnak. Gastu dirulaguntzaren eskuratze-kostua ez da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

- Deialdi honi dagokionez, ez dira gastu dirulaguntzaren joko inbertsio gastuetara bideratutako diru kopuruak, ez eta zeharkako kostuak edo kudeaketa kostuak ere.

Hamaikagarrena. Balorazio-irizpideak

Eskaerak 0 eta 100 puntu bitarteko eskalan baloratuko dira, irizpide hauei jarraituz:

I. Esperientzia (20 puntu gehienez):

Azken lau urteetan administrazio publikoek finantzatuak izan diren garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko proiektuak exekutatzeko entitate eskatzaileak izandako esperientzia baloratuko da. Proiektuaren kopurua eta diruz lagundutako zenbatekoak hartuko dira kontuan.

– 1 - 4 proiektu bitarte: 2,5 puntu.

– 5 - 9 proiektu bitarte: 6 puntu.

– 9 proiektu baino gehiago: 8 puntu.

Lortutako dirulaguntzen zenbatekoa:

– 0 - 10.000 euro bitarte: 2 puntu.

– 10.001 - 80.000 euro bitarte: 6 puntu.

– 80.000 euro baino gehiago: 8 puntu.

Balorazioa egiteko, proiektu exekutatuak deklaratu beharko dira III. eranskina datuz betez (eranskin horretan adierazitako informazioaz bestelakorik ez da kontuan hartuko). Gainera, deklaratuak jarduketek puntuak jaso ditzaten, haien frogagiriak helarazi beharko dira, emate-ebazpenaren kopia edo dokumentu baliokidea atxikiz. (Erantsitako agiri bakoitza izendatuko da III. eranskineko "identifikatzailea" zutabearen adierazitakoaren arabera).

II. Estrategia instituzionala (10 puntu bitarte):

- Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Planak edukitzea edo horretarako urratsak jasota edukitzea eskatzailea den entitatearen estrategia instituzionalean bertan. (5 puntu).

- Ingurumen-plan estrategiko bat edo ingurumen-kudeaketako jokabideen zehaztapen bat edukitzea (5 puntu).

- 50 langile baino gutxiagoko plantilla daukaten entitateentzat bakarrik. Genero-berdintasuneko plan bat edukitzea. (5 puntu).

Baloraziorako, datuz bete beharko da IV. eranskina, eta baloragarri diren jarduketarako frogagiriak aurkeztu beharko dira. Behar bezala identifikatuta daudenak bakarrik hartuko dira kontuan.

Bi apartatu horietan lorturiko puntuazioa 1,25ekin biderkatu ahalko da, baldin eta esku-hartzea Nafarroako Parlamentuak aurreko bi ekitaldietako edozeinetan finantzatua izan bazen eta haren jarraipenari balorazio positiboa ematen bazaio. Horretarako, eskaera-inprimakian labur azaldu beharko dira ordura arte lorturiko emaitzak eta jarraipenerako arrazoiak.

III. Proiektuaren kalitatea (55 puntu, gehienez):

a) Proiektua gauzatuko den egoeraren eta ingurunearen azterketa: (10 puntu, gehienez).

b) Kronograma (5 puntu gehienez):

c) Helburuaren, emaitzen eta jardueren koherentzia: (10 puntu, gehienez).

d) Adierazleak eta egiaztapen-iturriak: (10 puntu, gehienez).

e) Herritarrek parte hartzea eta boluntariora sustatzea: (5 puntu, gehienez).

f) Genero-ikuspegia jasotzea (10 puntu, gehienez).

Proiektua lagungarria da emakumeen eta haiek munduan duten kokalekuaren ikusgaitasunerako; gaitasunen sendotzea eta emakumeen autonomia sustatzen ditu.

g) Esku-hartzearen garapenean eragin dezaketen kanpoko arriskuen edo faktoreen analisisa (5 puntu, gehienez).

IV. Aurrekontuaren deskribapena: (15 puntu, gehienez).

– Aurrekontua deialdian jasotakoari egokitzea: (5 puntu, gehienez).

– Gastu-beharren justifikazioa: Giza baliabideak, baliabide materialak... (10 puntu, gehienez).

Ez dira baietsi 50 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskaerak.

Eskatutako dirulaguntza bera emanen da. Lehenetsun-ordena ezarriko da lortutako puntu kopuruaren arabera, eta dirulaguntzak esleituko dira harik eta aurrekontu-izendapenaren mugara iritsi arte. Prozedura horren arabera dirulaguntza lor dezakeen azken proiekturako eskatutako diru kopurua handiagoa bada haren finantzaketarako eskueran dagoen diru kopurua baino, instrukzio organoak zilegi izanen du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 20. bis artikuluan ezartzen denari jarraituz, onuraduna premiatzea bere eskaera birformula dezan, eman daitekeen dirulaguntzara doitzearren konpromisoak eta baldintzak.

Hamabigarrena. Errekurtsoak:

Deialdi hau oinarri arautzaile hauen bidez eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoaren bidez arautzen da.

Deialdi honen aurka errekurtso hauek jartzen ahalko dira:

– Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, deialdi hau argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita, edo

– Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo horretako salan, bi hilabeteko epean, deialdi hau argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

